

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Aurrekontuak, Finantza-kudeaketa eta Diruzaintza

Behin-behinean onestea aurrekontu-aldaketaren 1CC/26 espedientea, 2027, 2028, 2029 eta 2030eko ekitaldietan urterokoak izango dituen konpromiso-kreditu bat sortuz

Vitoria-Gasteizko Udalbatzak, 2026ko uztailaren 24ko ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion 2026ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu-aldaketa egiteko espediente honi:

— 1CC/26 espedientea: 2026ko aurrekontua aldatzea, konpromiso-kreditu bat sortuz “243002 3111 226.71 OMEren hiri osasungarriak” izeneko aplikazio berrian, 2027rako 5.500,00 euroko urteroko batekin, 2028rako 5.720,00 euroko urteroko batekin, 2029rako 5.940,00 euroko urteroko batekin eta 2030erako 6.160,00 euroko urteroko batekin”

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 165. artikuluan, Arabako Lurralde Historikoko Toki-erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen Testu Bategina onetsi zuen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 169. artikuluan xedatutakoari jarraituz, erabaki hau jendaurrean jarrita edukitzeko epe bat zabaltzen da, hamabost egun balioduneko, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko Udalbatzarraren aurrean.

Behin betiko onetsitzat joko da espedientea, baldin eta jendaurrean edukitzeko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko abuztuaren 3an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO